

CARITASEN KANPAINA

2012eko APIRILAREN 22

PAZKO ALDIKO III. DOMINGO (B)

«LANdu ETORKIZUNA!»

(Langabezia gazteen artean)

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✠ Liturgiaren sustapenez arduratzen dan taldeari lagungarriok aurkeztu.
- ✠ Lagungarriok alde zuzenik prestatu izan doguz. Kontuan izan, beraz, kanpaina ospatzen danean Jainko herriaren otortzean sartu daitekezan gertaerak.
- ✠ Liturgi lagungarriekin batera bialtzen diran lagungarriak irakurtea ezinbestekoa da Kanpainaren nondik norakoak ulertzeko..

SARRERAKO OHARRA

Gaur Be pazko aldiko alaitasunaz bartzen gara, Jesus Berbiztua bidelagun dogula eta gure fedea barritzen diharduala ospatzeko. Berak, egunez egun izaten doguzan ohikeria eta etsipenen erdian, dei egiten deusku, gizon eta emakume barri eta berbiztu lez bizi gaitezana.

Testuinguru honetan, Caritasek dei egiten deusku gazteen artean hain hedatuta dagoan langabeziaren arazo larriaz jaubetu gaitezana. «**LANdu ETORKIZUNA!**» («**por un FUTURO bien EMPLEADO**» goiburuan esaten jakunez, Kanpaina hau datorren maiatzaren 11n ospatuko dogun Elizbarrutiko alkartasun zeinuari lotuta dago. Gure arreteak erakartez batera, gure konpromisoa suspertu gura dau, danon artean

CAMPAÑA DE CÁRITAS

22 de ABRIL de 2012

III DOMINGO DE PASCUA (B)

«Por un FUTURO bien EMPLEADO»

(Desempleo juvenil)

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✠ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✠ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✠ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Un domingo más nos reunimos en ambiente de alegría pascual, para celebrar que Jesús Resucitado sigue caminando a nuestro lado y renovando nuestra fe. Es Él quien, en medio de la rutina y los desánimos de cada día, nos impulsa a vivir como personas nuevas y resucitadas.

Con este telón de fondo, Cáritas nos invita hoy a centrar nuestra atención en el grave problema del desempleo juvenil. El lema de esta Jornada: «**por un FUTURO bien EMPLEADO**» («**LANdu ETORKIZUNA!**») nos recuerda que la Campaña se sitúa en la misma línea que el Gesto diocesano de solidaridad, que celebraremos el próximo 11 de mayo. Pretende, pues, llamar nuestra atención y suscitar nuestro compromiso sobre la necesidad de dar solución a la san-





konponbideak aurkitu daiguzan gazte askok eta askok jasaten dauan egoera mingarri hau arintzeko. Pazko fedea bultzatu gaizala adore eta itxaropen egarri dagoan hainbeste gizon eta emakumegaz solidario izatera.

Abestuz hasiko gara...

SARRERAKO ABESTIA ETA PROZESINOA

ABADEAREN AGURRA

Jesus Berbiztuagan agertzen jakun eta hurko egiten dan
Maitasun eta Bakearen Jaungoikoa
egon bedi zuekin.

OHARRA URAZ BEDEINKATU AURRETIK

Eukaristia ospatzeko prestatuko gara, kristinau alkarteko kide bihurtu ginaneko eguna, gure bateo eguna, gogoratuz eta barrituz.

Ur bedeinkatua jasoko dogu.

URAZ BEDEINKATZEA

Bateo kanturen bat abestu uraz bedeinkatzen dan bitartean. Azkenean, abadeak dino:

Jaungoiko Ahalguztidunak pekatutik garbitu gaizala eta, Eukaristia honen bitartez, bere Erreinuko mahaian parte hartzeko aukerea emon deigula. Amen.

AINZA

OHARRA IRAKURGAIEI

Apostoluek ilusino eta poztasunez ekin eutsen Jesus Berbiztuaren Barri Ona lau haizetara iragarteari. Gaur geuri jagoku iragarpen eta ebanjelizatze prozesu horri jarraipena emotea.

Baina sinisgarritasunez eta itxaropenez egiteko, aurretik Berbiztuagazko pozezko alkarraldiaren esperientzia bizi behar dogu, horrela, hainbestetan ez atzera ez aurrera izten gaituen zalantza eta bildurrak gainditu ahal izateko.

grante situación de paro que sufren muchas personas jóvenes. Que la fe pascual nos siga impulsando a ser solidarios con tantos hombres y mujeres sufrientes, que están sedientos de ánimo y esperanza.

Comenzamos cantando...

CANTO DE ENTRADA Y PROCESIÓN

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Dios del Amor y de la paz, que se nos hace presente y cercano en la persona de Jesús Resucitado, esté con todos vosotros.

MONICIÓN A LA ASPERSIÓN

Nos preparamos para esta Eucaristía recordando y renovando el día en el que empezamos a formar parte de la comunidad cristiana: el día de nuestro bautismo. Recibimos la aspersión del agua bendecida

ASPERSIÓN CON EL AGUA

Se hace la Aspersión mientras se canta un canto bautismal. Al final, el sacerdote dice:

Que Dios todopoderoso nos purifique del pecado y, por la celebración de esta Eucaristía, nos haga dignos de participar del banquete de su Reino. Amén.

GLORIA

MONICIÓN A LAS LECTURAS

Los apóstoles iniciaron con ilusión y alegría la tarea de proclamar a los cuatro vientos la Buena Noticia de Jesús Resucitado. Hoy nos toca a nosotros continuar ese proceso de anuncio y evangelización.

Pero para poder hacerlo de manera creíble y esperanzada, antes hay que vivir una experiencia de encuentro gozoso con el Resucitado, que haga posible superar las dudas y los miedos que tantas veces nos paralizan.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Otoitzean bat eginez, gure beharrianak agertuko deusaguz Aita Jaungoikoari, esanez: *entzun, Jauna!*

- Elizearen alde, Barri Ona gizon eta emakume guztiei iragartea galarazoten deuten hitzarmen eta morrontzak apurtu daizan. *Egin daigun otoitz.*
- Kristinauon alde, gure bizimodua benetan sinisgarria izan daiten, beste batzuk be Jaungoikoagaz bat egiteko gogoia izan daien. *Egin daigun otoitz.*
- Lan barik dagozanen alde, batez be indarrean dagoan egoera ekonomikoaren ondorio latzak jasaten dabezan gazteen alde; gure laguntza solidarioa izan daien eta Jaungoikoaren seme-alabei jagoken duintasunaz bizi daitezcan. *Egin daigun otoitz.*
- Lana sortzeko eta ekonomia gizatasunez beteteko aukerea daukien alde; Jaungoikoak txiro eta behartsuen bitartez helarazoten deuskuzan deadarrak entzun daiezan. *Egin daigun otoitz.*
- Gure kristau alkarte honen alde, gure Pastoral Barrutiaren alde; Jesus Berbiztuaren indarraz beteta, bere jarrera eta egituretan barritu daiten. *Egin daigun otoitz.*

Jaungoiko Jauna, zure Semearen heriotzaren bidez, bake eta alkarganatzearen oinarria jarri dozu; entzun zure herriaren otoitza eta, zure maitasunaz, egin gaizuz gizadi barri eta baketsuaren zeinu. Jesukristo gure Jaunen bitartez.

OHARRA CARITASEN ALDEKO DIRUBATZEARI

Caritasek gure diru laguntza behar dau, lanik ez daukienengana eta batez be gazteengana heldu ahal izateko. Gaur batzen dan dirua horretarako izango da. Elizbarrutiko Caritasen izenean, eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

ORACIÓN UNIVERSAL

Unidos en la oración, presentemos a Dios Padre las necesidades de nuestro mundo, diciendo: *¡Escúchanos, Señor!*

- Por la Iglesia; para que rompa con pactos y servidumbres humanas que le alejan de su compromiso de anunciar el Evangelio a todas las personas. *Oremos.*
- Por los cristianos; para que nuestro estilo de vida sea tan auténtico y creíble que anime a otros a dejarse encontrar por Dios. *Oremos.*
- Por quienes están sin empleo, especialmente las personas jóvenes y las que más padecen las consecuencias de la actual situación económica; para que encuentren en nosotros el apoyo solidario que necesitan y puedan vivir con la dignidad propia de las hijas e hijos de Dios. *Oremos.*
- Por quienes tienen en sus manos más posibilidades de crear empleo y humanizar la economía; para que escuchen y acojan los gritos que Dios les hace llegar a través de los pobres y necesitados. *Oremos.*
- Por nuestra comunidad cristiana, por nuestra Unidad Pastoral; para que, con la fuerza de la fe en el Resucitado, se renueve en sus actitudes y en sus estructuras. *Oremos.*

Dios nuestro, siempre dispuesto a acoger a quienes se convierten y se proponen actuar con justicia y con bondad, escucha nuestras oraciones para que teniendo los sentimientos propios de Cristo, podamos alcanzar la paz y el perdón. Por Jesucristo nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO PARA CÁRITAS

“Muchos pocos hacen un mucho”, dice el refrán. La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. Gracias a todos por vuestra generosidad.

Con nuestro poco haremos posible un mucho de solidaridad y de justicia para con quienes más necesidad pasan.





JAUNARTZEAREN OSTEAN

[Egokitza jo ezker, jaunartzearen ostean irakurri daiteke.

Maiatzaren 11n ospatuko dogun Elizbarrutiko Alkartasun Zeinua gogoratu eta suspertu daitekegu.]

Emauseko ikasleen antzera,
berbiztu zaran arren, gu zalantzaz beteta gagoz, Jauna.

Gatx egiten jaku pobreen alde egiten dauan,
kurutzean hiltzen dan,
historiako kurutziltzatu guztiekin bat egiten dauan

Jaungoiko hain makalagan sinistea.

Gatx egiten jaku porrot egiten dabenen alde agertzen dan

eta Maitasunaren heriotzaren gaineko garai-pena ahalbideratzen dauan
Jaungoikoa dagoala sinistea.

Baina Zuk, Jesus Berbiztua, egun bakotxa
“Pazko aldi” bihurtzen dozu
eta behin eta barriro ateraten zara biderra gure bila.

Eskerrik asko, Jauna, gugaz geratzeagaitik,
guri ogia zatitzeagaitik eta mahaian gure ondoan jarteagaitik,
fedearen begiak zabaltzeagaitik eta zure itxaropenaren lekuko egiteagaitik.

Egun honetan, Caritasen bidez,
alkartasunez jokatu gura dogu
galduta edo porrot eginda sentitzen diranekin.
Gogoan doguz, batez be, langabetuak,
lan barik, bizitza aurrera aterateko gorriak
ikusten diharduen gazteak,
mundu honetan eurentzat itxaropenik ez dagoala uste dabena.

Emoiguzu zure indarra, gizarte bidebakokeria salatzeke,
mundu zuzenagoa eraikitzen laguntzeko,
garana eta daukaguna alkarbanatzeko,
gehien sufritzen dabena anai-arrebatzat hartuz

Lehenengo ikasleak lez, bete gaizuz geu be zure Erreinuaren aldeko ilusinoaz,
bizirik autortu zaiguzan Eukaristia bakotxean
eta anai-arreba behartsu bakotxaren arpegian.

DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

[Posible texto oracional, para después de la comunión.

Podríamos ir evocando y motivando el Gesto Diocesano de solidaridad que celebraremos el 11 de Mayo]

Al igual que los discípulos de Emaús,
a pesar de que has resucitado, seguimos ducando, Señor.

Nos cuesta creer en un Dios tan débil,
que apuesta por los pobres, que muere en la cruz,

que se hace solidario con todos los crucificados de la historia.

Nos resulta difícil imaginar a un Dios que apuesta por los fracasados
y hace posible que el Amor sea más fuerte que la muerte.

Pero Tú, Jesús Resucitado, haces que cada día sea “tiempo de Pascua”
y te empeñas en seguir saliendo a nuestro encuentro en el camino.

Gracias, Señor, por quedarte con nosotros,
por seguir partiéndonos el pan y compartiendo la mesa,
por abrirnos los ojos de la fe, y hacernos testigos de tu esperanza.

En este día, a través de Cáritas,
queremos hacernos solidarios
con las personas que se sienten perdidas o fracasadas.

Recordamos especialmente a quienes no tienen empleo,
a las personas jóvenes que mal-viven sin trabajo,
pensando que para ellas no hay futuro en este mundo.

Danos tu fuerza para denunciar toda injusticia social,
para colaborar en la construcción de un mundo más justo,
para compartir lo que somos y tenemos,
tratando como hermanos a quienes más sufren

Como a los primeros discípulos, llénanos de ilusión por tu Reino,
para reconocer tu presencia viva en cada Eucaristía
y en el rostro de cada hermano necesitado.

